

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

**ARAU MOLDATZEKO PROPOSAMENA, EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUA,  
ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ORDENANTZARI**

EH Bildu udal taldeak aztertzeko aurkeztu du araua aldatzeko ondoko proposamena, helburu izanik donostiarrak bultzatzea energia berriztagarrien aldeko hautua egitera:

Aldatzea Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga Ordenantza, 12. artikuluan (Hobariak) seigarren puntua:

Hau jasotzen du orain ordenantzak:

*6.- Zergaren kuota osoaren % 10eko hobaria, eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten etxebizitzetarako, katastroan haien balioa 250.000 euro baino gutxiago izanez gero. Hobaria jasotako kantitatearen gehienezko mugak ezin du gainditu inbertituriko zenbatekoaren % 5, BEZ eta guzti.*

Beste hau jartzea proposatzen dugu:

6.- Zergaren kuota osoaren % 50eko hobaria, eguzkitik edo beste energia iturri berriztagarrien batetik datorren energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten etxebizitzetarako, katastroan haien balioa 250.000 euro baino gutxiago izanez gero. Hobaritan jasotako kantitateak ez dauka inbertitutako zenbatekoaren % 5 (BEZ eta guzti) gainditzetik.

Donostian, 2021eko abuztuaren 3an.

Reyes Carrere Zabala  
EH Bildu udal taldeko bozeramailea